



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

2024ko hirugarren hiruhilekoa



LABORAL
kutxa

AURKIBIDEA: EDUKIAK ETA EMAITZAK

Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren bilakaera	3
Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren osagaiak	7
Euskal Kontsumitzailearen erosketa-erabakiak	13
Eranskina – Indizeak	19
Eranskina – Metodologia	23
Fitxa Teknikoa	26


EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN BILAKAERA

- EAEko familien konfiantza neutraltasunaren mugan mantendu da
- Estatuko eta EB-27ko familiak are ezkorragoak dira
- joera partekatua da, konfiantzaren “hobekuntza arina” islatuz

1 EAEko familien konfiantza neutraltasunaren mugan mantendu da

Urteko lehen hiru hiruhilekoetan EAEko familien konfiantzaren profila mantendu egin da (-5, -3 eta -4, lehen hiruhilekotik hirugarrenera), eta pandemiaren irteeraz geroztik (2021eko bigarren eta laugarren hiruhilekoaren artean), hiru hiruhilekoko sekuentzia-segidarik onena izan da.

Urteko batezbesteko behin-behineko balioa (-4) neutraltasunetik geroz eta gertuago dago (0 balioa), eta duela urtebete lortutako emaitza baino nabarmen hobea da (-10). Urteko azken hiruhilekoko emaitzaren faltan, badirudi 2024an EAEko familien konfiantza aurreko bi urtetakoa (-11 eta -9) baino hobea izango dela, baina balioak negatiboak dira oraindik, eta ezkortasun jakin bat dago.




2 | Estatuko eta EB-27ko familiak are ezkorragoak dira

EAEko, estatuko eta EB-27ko familien konfiantzaren bilakaerak hobekuntza arin bat erregistratu du urtean zehar: hiru eremuetan, familiek “ezkorrago” hasi zuten urtea, eta pixkanaka murrizten joan da ezkortasun hori. Hala, hirugarren hiruhilekoan, estatuko eta EB-27ko familiek urteko daturik onena erregistratu dute (-14 eta -12, hurrenez hurren), baina, bi kasuetan, EAEko familiak baino ezkorragoak dira (-4).

Estatuko eta EB-27ko familien ezkortasun handiago hori ekonomia-jardueraren igurikimeneke baldintzatzen dute. Hortaz, bigarren hiruhilekoko emaitzek² berresten dute EB-27 % 0,8 inguru haziko dela urte osoan, ekonomia handien makalaldiaren ondorioz (Alemania, Frantzia eta Italia, % 1etik behera). Aldiz, Espainiak ibilbide positiboagoa berretsi du (+% 2,9).

Kontsumitzailearen konfiantza. EAE, Estatu eta EB-27¹




1. EB-27ren eta Estatuaren 2024ko hirugarren hiruhilekoko datua behin-behinekoa da. Uztaila-abuztuko batezbestekoa
2. Eurostat. BPGren hazkunde ekonomikoa 2024ko bigarren hiruhilekoan, urte arteko tasan.

3 joera partekatua da, konfiantzaren “hobekuntza arina” islatuz

Aukeratutako Europako herrialdeetako familiek profil berdina erakusten dute: kasu guztietan, urteko hirugarren hiruhilekoko emaitzak aurreko emaitza hobetu edo mantendu du, eta konfiantza berreskuratzeko bilakaera partekatzen dute, ezkortasunaren barruan (balio negatiboak).

Hala ere, egoerak oso desberdinak dira. Frantziako familiak ezkorragoak dira (-14), eta atzetik daude Herbehereetako (-11) eta Alemaniako (-9) familiak. Hiru kasuetan, puntu bat hobetu dute bigarren hiruhilekoarekin alderatuta. Danimarkako familiek EAEko familien ezkortasun-maila berdina dute, eta azken hiru hiruhilekoetako konfiantzari eusten diote. Behin-behineko datuen arabera (hiru hiruhilekoen batezbestekoa), Frantziako familiak dira liderrak ezkortasunaren rankingean (-14); ondoren datoz Herbehereak (-11) eta Alemania (-11). Azken horiek dira urte osoan hobekuntzarik handiena izan dutenak (+6 puntu, lehen hiruhilekoari dagokionez).

Kontsumitzaileen konfiantza. EAE eta erreferentziako herrialdeak¹



1. Europako herrialdeen 2024ko hirugarren hiruhilekoko datua behin-behinekoa da. Uztaila-abuztuko batezbestekoa

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN OSAGIAK

- EAEko familiak mesfidati ekonomia orokorraren bilakaeraren inguruan
- enpleguari buruzko jarrera neutroa dute oraindik
- familiaren ekonomiaren gaineko konfiantzak okerrera egin du (apur bat)
- baina baikor dira aurrezteko igurikimenei dagokienez
- konfiantzaren osagaietan ez da aldaketarik (handirik) izan


4 EAEko familiak mesfidati ekonomia orokorraren bilakaeraren inguruan

Urteko hirugarren hiruhilekoan, EAEko familiak hurrengo hamabi hilabeteetarako ekonomia orokorraren gainean dituzten igurikimenek hobekuntza txiki bat izan dute (+1 puntu); hala ere, 2022ko bigarren hiruhilekotik balio nahiko negatiboetan mantendu da.

Ezkortasun hori baxuagoa izatea honako honen baitan dago: behera egin du egoera ekonomikoa zertxobait edo askoz hobea izango dela uste duten familien (% 14,0; ehuneko -1,6 puntu) eta zerbait edo askoz okerragoa izango dela uste dutenen taldeak (% 36,9; ehuneko -3,2 puntu), aldiz, gorakada izan da egoera antzekoa izango dela aurreikusten duten familien ehunekoan (% 49,1; +4,8 puntu).

Hala ere, pertzepzio ezkorrago hori ez dator bat EAEko ekonomiaren hazkunde ekonomikoari buruzko datuekin (Eustat); izan ere, datu horiek berretsi egiten dute lehen bi hiruhilekoetan ibilbidea positiboa izan dela (+% 0,4 eta +% 0,4, hiruhileko arteko tasa), eta horrek sendotu egiten du urte osoan % 1,8 inguru haztea.

Ekonomia orokorrari buruzko egoeraren igurikimenak. EAE




5 | enpleguari buruzko jarrera neutroa dute oraindik

EAEko familiak ia baikorrak dira langabeziari buruzko igurikimenei dagokienez: urteko ibilbidean lortutako balioek sekuentzia positiboa dute (+2, +2 eta 0), nahiz eta hirugarren hiruhileko honetan atzerakada txiki bat erregistratu.

Emaitza horren arrazoia da lau familiarik ia batek (% 23,3; ehuneko -1,2 puntu) langabeziak gora egitea aurreikusten duela eta familien erdiak berriz (% 50,3; ehuneko +5,5 puntu) ez du aldaketarik espero. Familien laurden batek uste du langabeziak behera egingo duela (% 26,4, -4,3 puntu).

Igurikimen horiek bat datoz argitaratutako datuekin, urtarokotasunaren eragina islatuz (uztaila-abuztua batezbestekoa). Hala, afiliazioak behera egin zuen (-% 1,2, hiruhilekoen arteko tasa), baina 1.004.854 afiliatu daude oraindik. Erregistratutako langabeziak gora egin zuen (+% 2,1, hiruhilekoen arteko tasa) eta 109.714 pertsona dira. Adierazle horrek okerrera egin du martxotik (bost hilabetez jarraian gorakada izan da).

Langabeziarekiko igurikimenak. EAE




6 | familiaren ekonomiaren gaineko konfiantzak okerrera egin du (apur bat)

Ekonomia orokorraren gaineko mesfidantzak (-15) eta langabeziaren bilakaeraren gaineko okertze txikiak (0, -2 puntu) eragina izan dute familiaren ekonomiaren gaineko igurikimenetan (-6) eta aurreko hiruhilekoan baino apur bat ezkorragoak dira (-2 puntu). Hala, 2024ko behin-behineko batezbesteko balioa (-5) aurreko hiru urteetan erregistratutakoa (-8, -17 y -12, urteko batezbestekoa) baino askoz hobea da dagoeneko.

Emaitza horren arrazoia da EAEko lau familatik ia hiruk uste duela bere familiaren egoera berdin mantenduko dela (% 72,0; ehuneko +4,0 puntu). Aldiz, hamarretik batek uste du hobera egingo duela (% 9,2; ehuneko -3,7 puntu) eta hamarretik bik okerrera (% 18,8; ehuneko -0,3 puntu).

Hortaz, familien egoera ekonomikoari buruzko igurikimen horiek berretsi dute ibilbideak hobera egin duela, inflazioa neurritsuagoa izan baita azken hilabeteetan (+% 2,6, EAEko KPI orokorraren hazkundera, 2024ko abuztua).

Etxeko ekonomiaren egoerari buruzko igurikimenak. EAE




7 | baina baikor dira aurrezteko igurikimenei dagokienez

Azkenik, EAEko familiak baikorrak dira datozen hamabi hilabeteetarako aurrezteko gaitasunari dagokionez, eta urtean zeharreko ibilbidea indartu egin dela berretsi da: urte hasiera neutralaren ostean, baikortasunera igaro dira eta emaitzak berretsi egin dira bigarren eta hirugarren hiruhilekoan (4 eta 3, hurrenez hurren).

Hala, EAEko familien erdiak baino apur bat gehiagok (% 56,6; ehuneko +0,5 puntu) uste du datozen hamabi hilabeteetan aurreztu egingo duela. Horrek esan nahi du apur bat hobera egin duela aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta denboran zehar mantentzen den ratioa dela aintzat hartuta, portaera aurreztailea-aurreikuslea islatzen du. Igurikimen horiek familiek egin dutenaren gainean eraikitzen dira: EAEko hamar familiatik zazpik (% 70,5) aurreztu egin du azken hiruhilekoan, eta apur bat hobetu da aurreko hiruhilekoko ratioa (% 67,5).

Aurrezteko gaitasunari buruzko igurikimenak. EAE



8 | konfiantzaren osagaietan ez da aldaketarik (handirik) izan

EAEko familien konfiantza-indizea indartu egin da, eta neutraltasunetik gertu dago, nahiz eta oraindik ez den maila horretara iritsi (-4). Hortaz, laugarren hiruhilekoaren faltan, 2024ko EAEko familien konfiantzaren indizearen behin-behineko batez besteko balioa (-4) azken hiru urteetako baino hobea da (-6, -11 eta -9), eta 2019an lortutako erregistrorik onenetik gertu dago (-2).

Emitza hori lortzeko konfiantzaren lau indize partzialen balorazioa eta bilakaera hartu da kontuan, eta, oro har, aurreko hiruhilekoetan lortutako balioen oso antzekoa da. EAEko familiek ezkorragoak izaten jarraitzen dute ekonomia orokorraren bilakaeraren (-15) eta familiaren ekonomiaren gainean (-6), langabeziaren (0) eta, batez ere, aurrezteko gaitasunaren gainean baino (+3).

Hamabi hilabetera begira espero dutenaren balorazioan, lau indizeen kasuan, “orain arte bezala jarraitzea” da nagusi eta, are, hobetzea. Hortaz, adierazleen balantze orokorra eta partziala neutraltasunera hurbiltzen ari da edo inguruan dago, baikortasun gorenaren eta ezkortasun gorenaren tarte (+100etik -100era) aintzat hartuta. Eta hondamendia izan ezean (pandemian gertatu zen moduan, 2020an), neutraltasunaren inguruko balioetan finkatzea aurreikusten da.

Familiaren konfiantza-indizea eta bere osagarriak. EAE

Indizea...	2019	2020	2021	2022	2023	IVH-23	IH-24	IIH-24	IIIH-24	Aldea	
Familiaren konfiantza	-2	-22	-6	-11	-9	-9	-5	-3	-4	-1	▶
Ekonomia orokorra	-6	-33	-12	-23	-21	-21	-18	-16	-15	1	▶
Etxeko ekonomia	-2	-12	-8	-17	-12	-9	-5	-4	-6	-2	▶
Langabeziaren bilakaera	-4	-41	-8	-1	-4	-4	2	2	0	-2	▶
Aurrezteko gaitasuna	2	-2	3	-2	-2	-1	0	4	3	-1	▶

↔ (±2 puntuko aldea)

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN EROSKETA-ERABAKIAK

- EAEko familiek uste dute inflazioaren okerrena pasatu dela dagoeneko
- erosteko unearen inguruko (egungo) balorazioak hobetu gabe jarraitzen du
- posizio neutrala dute erosketa handien gaineko igurikimenei dagokienez
- etxebizitza eta autoa erosteko asmoa ez da igo
- kontsumo handiarekin lotutako igurikimenek geldirik jarraitzen dute




9 | EAEko familiek uste dute inflazioaren okerrena pasatu dela dagoeneko

Inflazioaren bilakaeraren indize partzialak hobera egin du (+3 puntu) eta balio positiboetan dago (9 puntu). Hala, ibilbide positiboa finkatu da (1, 5 eta 9 puntu, lehenengo hiruhilekotik hirugarrenera). Hortaz, urteko behin-behineko balantzea (5 puntu, hiru hiruhilekoko batezbestekoa) urrundu egiten da 2021eko eta 2022ko ezkortasunetik (-41 eta -48). Izan ere, biurteko horretan 80ko erdialdetik ikusten ez zen espiral inflazionista orokorra izan zen mundu osoan.

Indizearen emaitzak adierazten du hamar familiatik ia bostek (% 46,4) uste duela prezioak azken urteko erritmo berean igoko direla. Aldiz, hiruk (% 31,1) edo bik (% 22,5) uste dute igoera geldoagoa edo azkarragoa izango dela, hurrenez hurren, eta azken talde hori da azken urtean zehar nabarmen jaitsi dena. Igurikimen horiek bat datoz inflazioaren bilakaerarekin, moteldu egin baita hazkundea EAEn (+%2,6 eta +% 3,0 KPI orokorarentzat eta azpikoarentzat² abuztuan) eta estatuan (+% 2,3 eta +% 2,7, hurrenez hurren). Hala, urteko erregistrorik txikiena izan du, eta % 2ko helburura hurbildu da. Hori izango litzateke interes-tasen bigarren murrizketaren arrazoia (EBZ, irailak 12).

Zure ustez, nola haziko dira prezioak hurrengo 12 hiletan?¹ (pertsonek %a)



¹ Azken 12 hilabetei dagokienez; ² Prestatu gabeko elikagaiak eta produktu energetikoak kenduta

10 | erosteko unearen inguruko (egungo) balorazioak hobetu gabe jarraitzen du

Oro har, zer iruditzen zaizu oraingo unea etxerako gaiak (altzariak, etxetresna elektrikoak, tresna elektronikoak...) erosteko?


Erosteke unearen gaineko balorazioak negatiboa izaten jarraitzen du (-23) eta, are, okerrera egin du aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (-3 puntu). Hala, hiruhileko horretan erregistratutako hobekuntza txikia galdu egin da eta urte hasierako mailara itzuli da (-23). Hortaz, familiek ezkortasunean murgilduta jarraitzen dute erosteko uneari dagokionez.

Eraitza horren atzean daude une txarra dela dioten familiak (% 31,0) eta balorazio neutrala egiten dutenak (% 60,6). Azken hori da iritzi nagusia. Gainera, familien % 10 baino gutxiagok uste du erosteko une egokia dela (% 8,4).

Erosteke unearen balorazioarekiko axolagabetasun hori "beharrik ez izatearekin" edo erosteko gaitasunarekin (beharrezkoa izanez gero) lotuta egongo litzateke; bestalde, une txarraren balorazioa erosketari horiei (beharrezkoak izan ala ez) aurre egin ezin izatearekin lotuta dago. Hala, familien heren batek uste du une txarra dela (zifra hori azken urtean ez dutela aurreztu erantzun dutenen antzekoa da).

Erosteke unearen balioztapena¹

(pertsonek %a)



¹ Azken 12 hilabeteetarako datuak

11 | posizio neutrala dute erosketak handien gaineko igurikimenei dagokienez


Zure ustez, nolakoak izango dira etxeko erosketak edo gastuak (hala nola altzariak, etxetresna elektrikoak, etxebizitzako konponketak eta abar) datozen 12 hilabeteetan¹?

EAEko familiek erosketak handien igurikimenak berretsi dituzte, eta posizio neutrala dute bigarren hiruhilekoz jarraian (0 puntu). Hala, urte hasierako erregistro negatibotik urrundu da (-6) eta laugarren hiruhilekoa falta da balantze orokorra egiteko.

Lortutako emaitzak islatzen du familia gehienek erosketen bolumen berdina mantenduko dutela (% 56,2). Erosketak murriztuko dituzten familiekin osatzen da emaitza (% 20,8), erosketak handituko dituzten familien taldea bikoizten baitu (% 11,5).

Horri dagokionez, esan behar da familien kontsumoa ahuldu egin zela bigarren hiruhilekoan (-% 0,3 eta +% 1,7, hiruhileko eta urte arteko tasan), eta okerrera egin zuela urteko lehen hiruhilekoan erregistratutako emaitzekin alderatuta (+% 0,9 eta +% 1,9, hurrenez hurren).

———— Zure usteetan, nolakoak izango dira etxerako erosketak datozen 12 hiletan¹ ————
(pertsonek %a)




¹ Azken 12 hilabetei dagokienez.



12 | etxebizitza eta autoa erosteko asmoa ez da igo


EAEko familien % 0,2k soilik uste du datozen hamabi hilabeteetan (ia ziur) etxebizitza bat erosiko duela. Urteko erregistrorik baxuena da hori. Lehenengo seihilekoan¹ etxebizitzaren 10.369 salerosketa egin dira EAEn (-% 7,0, 2023arekin alderatuta) eta horrek erakusten du merkatuan dauden zailtasunak (eskaintza falta) eta finantzaketa-kostuen gorakada. Azken hori murriztea aurreikusten da, erreferentziatzko interes-tasen beherakadaren arabera (Euriborra, EBZ).

Etxebizitza erosteko asmoa (hurrengo hamabi hilabeteak) (pertsonen %a)



Autoa erosteko asmoak hobera egin du aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, eta familien % 5,8k adierazi du hurrengo hamabi hilabeteetan auto bat erosiko duela (ia seguru). Balantzeak (urtarrila-abuztua) jardueraren bultzada berresten du, 16.087 unitate berri saldu baitira (+% 2,9 urte arteko tasan). Hori bai, bolumenak ez dira heltzen 2016an eta 2019an erregistratutakoetara.

Ibilgailua erosteko asmoa (hurrengo hamabi hilabeteak) (pertsonen %a)






¹ EIN, Jabetza-eskubideen transmisioen estatistika (etxebizitzaren salmenta); ² Anfac.

13 | kontsumo handiarekin lotutako igurikimenek geldirik jarraitzen dute

Kontsumoarekin lotutako igurikimenek hobera egin duten arren 2020-2022 aldian erregistratutako maila minimoetatik, badirudi hobekuntza hori gelditu egin dela:

- Erosketa handiak egiteko unearen balorazioak negatiboa izaten jarraitzen du (-23), eta ez du hobetzeko zantzurik erakusten (-3 puntu), aurreko urteko maila antzekoetan (-27, 2023an) jarraitzen baitu, hobetu ezinda (-22, 2024ko lehen hiru hiruhilekoetako batezbestekoa).
- Hurrengo hamabi hilabeteei begira, zuhurtzia da nagusi erosketa handiak egiteko garaian (0 puntu), eta laugarren hiruhilekoko emaitza falta da balantze orokorra zehazteko. Hala ere, hasiera batean, EAEko familiak neutraltasunetik gertu daude (-2, 2024ko lehen hiru hiruhilekoetako batezbestekoa); gainera, hobera egin dute 2023arekin alderatuta (-7) eta 2021eko mailetara itzuliko lirateke (-2), baina ez 2019ko mailetara (0).
- Etxebizitza erosteko asmoak oso ahula izaten jarraitzen du oraindik: familien % 0,2k etxebizitza erosiko duela uste du, eta ibilgailua erosteko igurikimenek hobera egin dute apur bat -EAEko familien % 5,8k ibilgailu bat erosiko duela adierazi du-.
- Familiek uste dute inflazioaren txarrena pasatu dela dagoeneko: indize partzial hori positiboa da, eta urte osoan zehar izan duen ibilbide positiboa finkatu da (1, 5 eta 9 puntu). Hala, urteko behin-behineko batezbestekoa (5) 2019az geroztik onena da.

Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk

	2019	2020	2021	2022	2023	IV H-23	I H-24	II H-24	III H-24	Aldea	
Prezioen bilakaeraren igurikimenak	-20	-22	-41	-48	-6	-7	1	5	9	4	
Erosteko unearen balorazioa	-5	-13	-12	-34	-27	-23	-23	-20	-23	-3	
Erosketak egiteko igurikimenak	0	-12	-2	-11	-7	-7	-6	0	0	0	


↔ (±2 puntuko aldea)

ERANSKINA – INDIZEAK

laburpena: familien konfiantzaren indizea

euskal familien konfiantzaren indizea, ezaugarrien arabera

beste adierazle batzuk



I laburpena: familien konfiantzaren indizea

	2019	2020	2021	2022	2023	IV H-23	I H-24	II H-24	III H-24	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea										
• EAE	-2	-22	-6	-11	-9	-9	-5	-3	-4	▶
• Estatua*	-6	-23	-13	-26	-19	-19	-17	-14	-14	▶
• EB*	-6	-14	-7	-22	-17	-16	-14	-13	-12	▶
○ Frantzia*	-8	-13	-7	-18	-17	-15	-13	-15	-14	▶
○ Alemania*	-2	-9	-5	-20	-15	-15	-15	-10	-9	▶
○ Danimarka*	4	1	5	-14	-8	-6	-4	-4	-4	▶
○ Herbehereak*	-7	-13	-4	-25	-18	-14	-12	-12	-11	▶
Osagaiak: familien konfiantza. EAE										
• Ekonomia orokorra	-6	-33	-12	-23	-21	-21	-18	-16	-15	▶
• Etxeko ekonomia	-2	-12	-8	-17	-12	-9	-5	-4	-6	▶
• Langabezia	-4	-41	-8	-1	-4	-4	2	2	0	▶
• Aurrezkia	2	-2	3	-2	-2	-1	0	4	3	▶
Beste indize batzuk. EAE										
• Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak	-20	-22	-41	-48	-6	-7	1	5	9	▲
• Erosteke unearen balioztapena	-5	-13	-12	-34	-27	-23	-23	-20	-23	▼
• Erosketak egiteko igurikimena	0	-12	-2	-11	-7	-7	-6	0	0	▶
Erosketa handiak. EAE**										
• Etxebizitza	2,1	0,9	1,5	1,2	0,6	0,2	0,4	0,7	0,2	▶
• Autoa	6,4	5,3	6,3	6,5	4,3	4,0	5,5	4,8	5,8	▶

⇔ (± 2 puntuko aldea)

* III. hiruhileko datuak uztaila-abuztua batez bestekoari dagozkio.

** Erosteke probabilitatea (asko, nahiko, gutxi)

II | euskal familien konfiantzaren indizea, ezaugarrien arabera

	2019	2020	2021	2022	2023	IV H-23	I H-24	II H-24	III H-24	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea										
• EAE	-2	-22	-6	-11	-9	-9	-5	-3	-4	▶
Adin-taldeak										
• 25 eta 39 urte bitartean	4	-17	-4	-4	-10	-7	-9	-7	-9	▶
• 40 eta 54 urte bitartean	-2	-22	-7	-14	-9	-7	-5	-3	-2	▶
• 55 eta 64 urte bitartean	-6	-25	-6	-11	-6	-8	-3	0	2	▶
• 65 eta 74 urte bitartean	-8	-26	-8	-14	-12	-15	-4	-1	-9	▼
Lan egoera										
• Landuna (soldatapekoa/ norbere kontura)	1	-19	-4	-10	-7	-5	-5	-3	3	▲
• Langabea	-8	-31	-16	-19	-23	-23	-24	-13	2	▲
• Ez-aktiboa (erretiratua, etxeko langilea, ikaslea...)	-6	-25	-7	-12	-9	-11	-1	-1	2	▶
Familia-unitatearen hileko errenta										
• 1.700 €-rainokoa	-13	-32	-19	-22	-20	-13	-17	-18	1	▲
• 1.701 eta 2.800 € bitartekoa	0	-19	-6	-11	-9	-15	-4	-3	3	▲
• 2.800 €-tik gorakoa	4	-14	6	-1	-1	-1	1	5	3	▶

⇔ (±2 puntuko aldea)

III | beste adierazle batzuk

	III H – 23	IV H – 23	I H – 24	II H – 24	III H – 24 _b	(azkena)
BPG	2,5	2,2	2,1	1,8	--	II. hiruhilekoa
Familien kontsumoa	1,2	1,9	1,9	1,7	--	II. hiruhilekoa
Afiliazioa	-0,8	1,8	-0,3	1,0	-1,2	uztaila-abuztua
Erregistratutako langabezia	0,3	1,2	2,4	-3,3	2,1	uztaila-abuztua
Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea	0,0	-0,2	1,3	1,8	--	II. hiruhilekoa
Etxebizitzen salerosketa	1,5	-17,1	28,7	-8,4	--	II. hiruhilekoa
Ibilgailuen matrikulazioa	-18,8	29,4	-10,6	4,9	-17,0	uztaila-abuztua

b: behin behinekoa

1. BPG eta etxeetako kontsumoa. Ekonomiako kontuak, Eustat. Bolumen kateatuaren indizea; urtetik urterako tasa.
2. Afiliazioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
3. Erregistratutako langabezia. SEPE. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
4. Txikizkako merkataritzako salmenta-indizea. Eustat. Hiruhilekoen arteko tasa.
5. Etxebizitzen salerosketa. Ondare-eskualdaketen estatistika, EIN. Hiruhilekoen arteko tasa.
6. Ibilgailuen matrikulazioa. Anfac. Hiruhilekoen arteko tasa.

Erreferentziako datua hiruhilekoko batez bestekoa denetan, azken aldakuntza behin behinekoa da eta hori kalkulatzeko eskura dagoen azken datua (bi hilabete) hartzen da kontuan.

Erreferentziako datua hiruhilekoko metatua denetan, eskura dagoen epealdiaren gainean -azken hila aurrekoarekiko, edo azken bi hilak aurreko biekiko- kalkulatu da azken aldakuntza

ERANSKINA– METODOLOGIA

kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

zer esan nahi du indizearen bilakaerak?




I | Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

Datozen hamabi hiletan izango duten bilakaerari buruz pertsonek duten iritzia laburtzen duen adierazlea da kontsumitzailearen edo familiaren konfiantza-indizea. Hona hemen adierazleok:

- 1) Ekonomia orokorraren egoera
- 2) Etxeko ekonomiaren egoera
- 3) Langabeziaren bilakaera
- 4) Etxean aurrezteko duten gaitasuna

Euskal familietako pertsonen konfiantza-indizea¹ kalkulatzeko, Europako Batzordearen metodologia (galderen diseinua eta indizeen kalkulua) erabiltzen da.



¹ *Consumer Confidence Indicator*, dokumentu honetan familien konfiantzaren indize bezala aipatzen dena, kontsumitzaileen iritzia jasotzeko.

II | Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?

Konfiantza-indizea pertsonen iritziarekin osatzen da. Ekonomia orokorrak, etxeko ekonomiak, aurrezkiak eta langabeziak gaurkoaren aldean urtebete barru izango duten egoera balioztatzen dute horiek.

Bost mailatan (askoz okerragotik askoz hobegorainoko bitartean) sailkatzen da.

Osagaiak: konfiantza-indizea

Hauen indize partzialak:

- Ekonomia orokorrarena
- Etxeko ekonomiarena
- Aurrezteko gaitasunarena
- Langabeziaren bilakaerarena

- Arlo bakoitzean lortutako erantzunen tratamendu agregatua indize partzial bat da.
- Eta familien konfiantza-indizea lau indize horien (kontsumitzaileen konfiantzaren osagaien) batez besteko balioa da.

Baikortasuna



Nola interpretatzen dira lortutako emaitzak?

- Balio positiboak (100era artekoak): egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek.

Ezkortasuna



- Balio negatiboak (-100era artekoak): egoerak txarrera egingo duela uste dute familia gehienek.

Fitxa teknikoa eta metodologia

Fitxa teknikoa

- Inkesta EAeko 800 laguni egin zaie
- 2024ko abuztuaren 26tik irailaren 6ra (2024ko III. hiruhilekoa)
- Banaketa: sexua, adin-taldeak, jarduerarekiko erlazioa eta errenta-mailak
- % 95eko konfiantza, +/- % 3ko lagin-errorea

Metodologia

Kontsumitzailearen konfiantza-indizea:

- Europako Batzordea http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/index_en.htm